

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 2047/2019 FORU AGINDUA, uztailaren 3koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 14ko 48/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen Epaimahaiko kideak izendatzen dituena. Foru dekretu horren bidez, 2019ko ekitaldian Bizkaian arte eszenikoen (antzerkia eta dantza) ikuskizunak sustatzeko diru-laguntza foralen oinarriak eta deialdia onesten dira.**

Maiatzaren 14ko 48/2019 Foru Dekretuaren bidez, 2019ko ekitaldian egiten diren arte eszenikoen ikuskizunak (antzerkia eta dantza) sustatzeko Foru Aldundiak emango dituen diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dira. (Bizkaiko Adizkari Ofizialean 98. zenbakia 2019, maiatzak 24).

Foru dekretu arautzaile horren 11. oinarrian honakoa ezarri da: aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Saileko foru diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20eko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i) eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau,

**XEDATU DUT:**

*Lehenengoa:* Maiatzaren 14ko 48/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraz gain, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andre txit argiari, behin betiko ebazpena eman dezan, ebazpen-proposamena prestatu eta aurkezteko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea. Honakoak izango dira, beraz, epaimahaikideak:

- Epaimahaiburu titularra:
  - Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendari Nagusia).
- Ordezko epaimahaiburua:
  - Ana de Castro Rubalcaba (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia).
- Epaimahaikide titularrak:
  - Ana Lopez Asensio (Kultur kudeatzailea).
  - Iñaki Larrañaga Urien (Kultur kudeatzailea).
  - Montserrat Petralanda Gorrotxategi (Bizkaiko Foru Aldundiko Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Ataleko Burua).



- Ordezko epaimahaikideak:
  - Maria Aranzazu Arrazola Beascoechea (Kultur kudeatzailea).
  - Janire Lopez Calzada (Kultur kudeatzailea).
  - Mikel Etxebarria Etxeita (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuko Burua).
- Idazkari titularra, botorik gabe:
  - Mikel Murillo Aurrekoetxea (Teknikaria kultura-proiektuen zuzendaritzan).
- Ordezko idazkaria, botorik gabe:
  - Aitziber Elezcano Altuna (Kultur Ekintzako Goi Mailako teknikaria).

*Bigarrena:* Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

*Hirugarrena:* Agintzea foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

#### AZKEN XEDAPENA

#### **Azken Xedapen Bakarra.— Indarrean jartzea**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru-agindu hau.

Bilbon, 2019ko uztailaren 3an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA